

2008/2009 IKASTURTEKO ESPERIENTZIA: PUBLIZITATEA PROIEKTUA

ARRASATEKO
ESKOLAKO

agenda 21



Eskolako Agenda 21 zer den GOGORATUZ:

Eskolako Agenda 21 da hezkuntza komunitateak hartutako konpromisoa, ikastetxeko eta horien inguruko ingurumenaren kalitatearen eta iraunkortasunaren alde lan egiteko. Konpromiso horrek dakar ingurunea ezagutzeko interesa izatea, bidegabekoa dena aldatu nahi izatea eta horretarako gogoia izatea, eta guztion orainaren eta etorkizunaren alde lan egiteko konpromisoa hartzea.

Oinarritzko hiru osagai ditu: ikastetxeko eta inguruko ingurumenaren iraunkortasuna, curriculumaren berrikuntza eta komunitatearen parte hartzea.



Kurtso honetako PARTE HARTZAILEAK:

Eskolako Agenda 21 Arrasaten proiektua guztiz zabalik dago; Legazpiko Ingurumen Gela (CEIDA) eta Udalako Ingurumen Eskolak (Arrasateko Udala) zuzentzen dute eta herriko ikastetxeek parte hartu ahal dute.

Aurten ere Arrasateko ikastetxe guztiek jarraitu dute proiektuan: Arizmendi Ikastola (Gazteluondo, Sta Teresa, Arimazubi eta Gaztelupe Guneak), Arrasateko Institutua eta Arrasate Herri Eskola.

Proiektuan ikasleek zein irakasleek hartu dute parte; guztira 1.895 ikasle ari dira garatzen proiektua.

PUBLIZITATEA, proiektu berri bat

Eskolako Agenda 21 proiektuaren hasieran (2003an) ikastetxe guztiek euren zentroetako diagnostikoa egin zuten ingurumen arazoak detektatzeko eta aukeratzeko hurrengo urteetan landuko zituzten gaiak. Lehendabiziko hiru urtetan zaborra, ura eta energia landu ziren eta laugarren ikasturtean hiru gai horiek berriz hartzea erabaki zuten.

Azken bi urtetan Kontsumo iraunkorra eta Publizitatea aukeratu dira.

Eskoriatza eta Aretxabaletan ere gauza bera egin dute.



Ikasleek egindako lana

Eskolako Agenda 21aren bitartez Arrasatek jasangarritasunaren bidean aurrera egin dezan saiateren ari dira ikasle hauek, euren esku dagoena egiten saiatuz, hau da, hartutako konpromisoak betetzen saiatuz.



Eskolako Agenda 21eko lana orain dela 6 urte hasi genuen zaborra gaia landuz; hurrengo urteetan ura, energia eta kontsumo iraunkorra landu ziren. Kurtso honetan Publizitatea landu dugu.

Asko izan dira denboraldi honetan egindako lanak eta aktibitateak, bai gure zentroetan bai herriko hainbat txokotan, baina zuek ideia bat egiteko ondoren zerrendatzen diren jarduerak adibide gisa azaltzen ditugu:

- Lehenengo eta behin Udal Ingurumen Eskolak bultzatuta kontsumo ohitura eta publizitateari buruzko galdetegia egin genuen Arrasateko kaleetan zein etxeetan. Gero gelaka aztertu eta ondorioak atera genituen.
- Ikasleek erabiltzen dugun materiala eta arropa behatu dugu. Gelaka arropak, oinetakoak eta ikastolara ekartzen dugun materiala (motxilak, arkatzak, borragomak,...) zein markakoak diren aztertu dugu.
- Udalako Ingurugiro Eskolakoekin hainbat lan egin dugu: denda ekologikoa antolatu, herriko hainbat txoko miatu, inkestak bete, aldizkarietako publizitatea aztertu eta paper zaharra aprobetxatuz eskulanak egin ditugu.
- Gure geletan gaia sakonki landu dugu: markako eta produktu zurien arteko fidagarritasuna aztertu dugu.

- Publizitateak erabiltzen dituen esloganak eta irudiak ikusi ditugu.
- Publizitatea lantzerakoan pobreziaren gaiaren hainbat aspektu ere landu ditugu, batez ere elikadurarekin lotutakoak.
- Bidezko merkataritza ezagutu dugu, eta Ekuador, Kolonia, Peruko produktuak dastatu ditugu eta hango langileen lan-egoera ikusi dugu (soldata, zein adina eduki behar dute lan egiteko, eta abar).
- Gure eskoletako diagnostikoa ere egin dugu eta paretetan publizitate gutxi dagoela ikusi genuen, baina dauzkagun aparatu eta liburu guztietan publizitatea dagoela konturatu ginen.
- Kale ibilbideak egiterakoan panelak aztertu ditugu, kaleko hormak, eraikuntzak, eta abarrekoak ea zikin dauden edo ez. Argazkiak atera ditugu gaizki dagoenarekin eta udaletxean gure zalantzak argitu ditugu.
- Herrian publizitateari buruzko ordenantza bat edukitzea egokia den edo ez aztertu dugu gelan.
- Udalaren web orrian "trukeko azoka" erabili izan dugu eta behar ez ditugun produktuak bertan utzi ditugu.


Publizitatearen gaia aztertu dugunean konturatu gara arazo asko agertzen direla (hondakinekin erlazionatutakoak, herriko bizimoduekin erlazionatutakoak, etabar) eta denok egin genezakeela zerbait hori guztia konpontzeko.



Gaiak nola landu diren IKASTETXEETAN... Gaiak nola landu diren HERRIAN.



1.895 ikasle protagonista



Publizitatearen inguruan ikasleek egindako konklusio, proposamen eta konpromisuak

Maiatzaren 28an udalbatzar berezia ospatu zen eta ekitaldi horretan neska-mutiek udal-ordezkariei hainbat proposamen eta konklusio azaldu zizkieten, guztiak Publizitatea gaiarekin erlazionatutakoak. Hau izan zen ikasle taldeak irakurritako testua:

Orain aurkeztuko dizkizuegun ondorio, proposamen eta konpromisoak egiten ikasle guztiok parte hartu dugu. Lehendabizi ikasgela bakoitzean adostu ditugu, gero ikastetxe bakoitzeko ikasgeletako ordezkarien arteko batzarrean adostu ditugu eta amaitzeko hemen aurkeztuko dizkizuegunak aipatutako ikastetxe guztieta-ko ordezkarien arteko batzarrean adostu ditugu.

Pleno areto honetan gauden ikasleok lehen aipatu ditugun ikastetxe guztieta-ko ikasleen ordezkariak gara. Orain entzungo dituzuen proposamen eta konpromisoe-kin Arrasateko bizi kalitatea hobetu nahi dugu, hau da, Arrasate hobeago bat lortzen lagundu nahi dugu.

Publizitatearen gaia landu dugunean beste gai batzuekin erlazio zuzena duela konturatu gara:

- Hondakinekin erlazio zuzena du; honela postontzietako publizitateak urtero Debagoienean 250.000 kilotik gora paper hondakin sortzen ditu. Aipatutako datua kontuan hartuta, uste dugu postontzian jasotako publizitatearen ondorioz, paper gehiegi alferrik galtzen dela eta horren aurrean gure proposamena hauxe da: **“Publizitaterik ez” pegatinak udalak herritarren artean banatu hauek euren atari edo/eta postontzietan jartzeko aukera izateko”**.

Guk gure aldetik pegatina horiek erabiltzeko konpromisoa hartzen dugu” eta “ etxera heltzen den publi-

zitate papera, ahal den heinean, eskulanetarako erabiliko dugu”.

Askotan etxera ailegatzen den publizitatea ez dator paper birziklatuan eta **udalarekin erlazioa duten enpresek behintzat paper birziklatua erabili beharko zuten.**

- Kontsumoarekin ere publizitateak lotura estua du; herritarrei egindako inkestetan ikusi dugu etxera iritsitako publizitateari askotan kasua egiten zaiola eta publizitate horren eraginez gehiago erosten dutela. Bestetik bertako produktuek ez dute ia publizitaterik eta kaltetuak suertatzen dira. Honen aurrean proposamen hau egiten dugu: **“Hemengo produktuei buruzko informazioa zabaltzea herritarrek dituzten erosteko ohiturak aldatzen joateko. Udalak herriko produktuei lehentasuna eman behar die eta laguntza eman horien publizitatea egiteko”**. Guk konpromisoa hartzen dugu orain publizitaterik ez dauka-





ten produktuak ere aztertzeko eta onak badira erabiltzeko. Erosi aurretik merkatuan agertzen diren produktuak konparatuko ditugu eta ez diogu kasu handia egingo publizitateari.

Kontsumoaren gaiarekin luzatzen dugu beste proposamen bat: **“Kontsumo ikastaroak antolatu herritarrak kontzientziatzeko”**.

Udal honek herriko jaietako programan ez du publizitaterik sartzen eta hori oso egoki ikusten dugu, ohitura hau mantentzen animatu nahi dugu.

- Publizitateak eragina du kale garbitasunean: Gure azterketen bidez egiaztatu dugu Arrasaten kalean publizitate asko dagoela eta toki batzuetan paretak zikin daudela. Gure ustez arazo horri aurre egiteko **Udalak publizitatea jartzeko taula edo panel gehiago jarri behar ditu.** Guk

kartelen bat jarri behar dugunean toki horiek erabiltzen saiatuko gara.

- Publizitateak Gizartearen hainbat eskubide zapaltzen ditu: batzuetan publizitatearekin emakumearen irudia gaizki erabiltzen da. **Udalak pentsatu beharko zuen ordenantza bat lantzeko eta publizitateak arau gutxi batzuk errespetatu ditzala.** Ordenantza horretan beste aspektu batzuk ere sar daitezke (non jarri publizitatea, nola banatu publizitatea, eta abar). Gu prest gaude ordenantza hori prestatzen laguntzeko.



Lehen Hezkuntza, DBH eta Batxilergoko ikasleen ordezkariak alkatearekin egin zuten bilera.

07-08 ikasturteko proposamen guztiak berrikusi ziren eta alkateak banan banan aztertu zituen bakoitzarekin zer egin den edo zer egiteko dagoen adieraziz.

Kontsumo iraunkorraren inguruan izan zen kurso horretako proiektua.

Egileak:



ARRASATEKO UDALA
UDALAKO INGURUMEN ESPOLA



Arrasate
arenxabaleta
INSTITUTUA



arrasate
Herri Eskola

Laguntzaileak:



INGURUMEN ETA LURRALDE
ANTOLAMENDU SAILA
DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE
Y ORDENACION DEL TERRITORIO